

# Sozialismoa eta herria

Mingarri bada ere oso hotz hartu izan dute herri arazoa sozialismoak eta Marxismoak. Beste edozein agintemolde bezain larde-riko eta zenpatzaille bilakatu dira arlo honetan.

Hauke bera esaten zigan "Larresorok" lehen asteke alean: "Jakina denez, Fraitziako Sozialista Alderdiak, Komunistak bezala, aihuruz eta erretze bezagueratu izan ditu etni-arazoak eta desberdintasun-nahiak".

Behinola Mitterrand-ek eman zion erantzunaren herri ematen digu: "Ongi dakizue: ni Nièvre-ko deputatua naiz aspaldi honetan; eta eskualde hartan ez dago etni-arazorik. Aitor dut, beraz, problema horren gorabeherak, ez ditudala oso zehazki ezagutzen".

"Arrapostu horixe (edo hori baino gaiztegorik ere ez gutxitan) jaso liteke asko eta askotan etni-arazoa beren haragian bizi ez duten sozialistengandik".

Salaketa berbera egiten dio Mujikari PSOE alderdiagatik Valen-ciako Vicent Venturak Cambio 16-can, 151. alean.

"Badira, esaten dio, PSOEen ez dauden sozialista taldeak, ez bait du denentzat arrakasta berdina. Zerzatik?"

"Ezin du ulertu zenbait egia, bere erakunde baterakoi eta zentralizatzaileak ez bait dio egia hori ikusten eta onartzen uzten. Nahit da ezkoa da egia hori aintzakitatzen hartzea, Mujikak samurki "taldeak" izenaz bataiatzen dituen hoiak agiriko edo zentzuzko eztabaida batean parte har dezaten".

Badirudi Fraitziako Sozialista Alderdia ohartu dela, herrien berezitasunak eta nortasunak arduratzen ez bada, jai duela leku askotan. Egiazko kezka ala itxurazkoak bakarrik du? Gauza asko agindu ohi da agintea hartu aurretik. Erraz jaxten da politikoa ardi larraz. Fruituefatiak ezagutu behar da.

Guk ez dezakegu herrien berezitasuna eta nortasuna aintzakitatzen hartzen ez duen sozialismorik onar. Hor konpon. Gizonaren eskubi-ak ez daitezke komenientzira muga. Politika moldeak eta taideak herriaren eta herri horretan gizontzen den gizonaren zerbizutan egon behar dute.

Gizona eta herria, berriz, diren bezalakoak dira. Ez nik nahi nituzkeen bezalakoak.

Inork ez du herriaren jaun eta jabe izateko eskubiderik. Ezta ordezkari ere herri horrek agintea ematen ez dion bitartean. Herri horretako talderen baten ordezkaritza izango du gehienek ere. Herria, denok osatzen dugu: zuk eta nik, gazteek eta zaharrek, gizon-ekoek eta emakumezkoek, gure seme-alabek eta gure gurasoek, ikasiek eta ezjakinek, zuriek eta beltzek.

Den bezalakoak dela gure herria, horri zor naitzako. Heri maite behar dut, txikia eta ezepeza bada ere. Edonork maiztzen ditu haundiak eta indartsuak. Ikusten dena maiztzen da. Haundia, berriz, ikusten erraza izan. Txikia ikusteko krisailu guztiak piztu behar dira. Behean dagoenak eta behera jaisten denak bakarrik ikus dezake txikia. Norbaitek ikusten ez badu oso gorenean dago ala begibista motza dauka. Hankapian, dauka agian.

Denan den herriaren eta herri horrek sortzen eta egiten duen gizonaren zerbizutan ihardun behar dugu. Ezagutu egin behar dugu, lehenik, horretarako. Herri herren iriztia eta nahia jasiteko bideak jarri behar ditugu.

Ugalduz, indartzuz eta haziz joan behar luke herri horren egiazko zerbiztarian taldeak. Aspalidanik ikutatua beharko guketzen, gure arteko jauntokeriak eta taldekeriak, herri horren ona bakarrik bilatu izan bagenu.

Ordu da oraindik.

Irekitasunaren eta elkartasunaren turuta jo du orduak.

# Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian

Goiko titulu horrekin berorrekin ZABAL Elkargoaren liburu bat ager-tu da: Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian. Egileak: P. Iz-tueta eta J. Apalategi. Argitaratze Zabal izeneko Elkargoa, Elkar argi-talpenak, Irati Salla, Baiona 1974, 143 orrialde. Argitaldaren lehen argitalkizuna da. «Hauts Etudes»-etako diploma tesia.

Lehendik ere ZABAL aldizkaria, ezaguna zen. Ezagutzen ez duena-ritzat hauke bakarrik esango dut: Baionan argitaratzen da eta urte betetik gora bada bizkor-bizkor ari dela. Bi hilez behin egertzen da. crain arte, bederatzi zenbaki eder ditu atereak. Eskola gabeentzat bai-ngo gehiago, zorbait ikasientzat egi-na da. Euskal Herriko gorabeheri begira ari da. Bai P. Iztueta eta bai J. Apalategi kultur aldizkari ho-netan lankide dira.

Marxismoa eta nazio arazoa: amaika burruka eta eztabaida fran-ko sortu du problema honek. No-leko buruko minak! Baina azkenean ezer argitu ote da? Jende asko nekatu bai: askotan ulertu ezinez-ko eztabaidak ziren eta. Liburu ho-nek, ordea, ez du «filosofiarik» ge-hiago egiten. Politika mailan gel-ditzen da. Bestalde, behin baino gehiagotan galdetzen diogu geure buruari: hainbeste eskola eta marx-ist joera diferente horien artean, non ote daude diferentziak? Eta okerrago dena: hainbeste katrami-laren ondoren ia ez dakigu bazte-rretan zenbat eskola eta joera da-goen ere.

Liburu hau ez da problema bera aztertze, dauden tesiak banan-bana aztertzeko balizki. Nork zer esaten duen argitu nahi da. Irakur-lezko behar zuena, hain zuzen.

Dauden taldeak beren izenez ai-patzen dira: Saiok, VI-Asanblea, Sarriall Ihartzakoren taldea, eta beste. Bakotzaren teoria zehazki azaltzen da: bere kontzeptuak: eus-kal arazarentzat proposatzen di-tuen soluzioak. Nolako estrategia duen buruan. Eta zein taktika era-matea gomendatzen duen; hots, burgesiaren eta proletarioaren arte-ko gorabeherak nola ikusten di-tuen nazio hazti honetan, Liburu guziz «konkretua» da, hortakoz. Oso informatiboa.

Iztuetak eta Apalategi elkak lan-ean eman ditugun liburu honek, herri marxismo sail diferente be-rezten ditu Euskal Herrian. Lehe-nengoari «ortodoxoena» esan ge-nieziako: Alderdi Komunistak, «Kom-unistak» taldea, Saiok, VI-Asan-blea. Hauen Lenin eta Stalinen izkribuetan inspiratzen dira. Horre-gatik, bi Autoreek Lenin, Stalin eta III. Internazionalari ere galdera ber-berak egin dizkiete: zein soluzio-bide eskaintzen diote nazio arazo-ri? Zein kontzeptu darabilazte na-zio arazoak espikatze? Eta abar. Guztientzat eskema bera.

Bigarren sailean Sarriall Ihartzak-ko eta bere ingurukoak daduzkagu. Hau da, kolonietako esperentziak-eta aprobetxatzen dituztenak. Hauen inspirazio iturburuak argitze-ko, Mao, Ho Txi Minh, Fidel Cas-tro eta Sartre aztertzen dira.

Hirugarren tokian Autoreek ho-besten duten tesia azaltzen da. Organizazio gatzte guztiz ezagun ba-tena, nik uste. Marxismoa eta na-zio arazoa nola batera dituzten era-kusten da. Eta beti eskema berbe-ra aplikatu: kontzeptuak, etapa-k, estrategia, taktika, soluzioak.

Berez, batez ere argitasunari be-giratu zaio. Iluntasunaren euskal erresuma honetan eskeragarri da. Piská bat asperragi gertatzen da, apika. Beti eskema bera. Baina bi Autoreak garbitasuna egiten enpei-natu dira. Irakurleak estimatuko duelakoan nago.

Honek ez du esan nahi, halere, liburuaz erraz-eraz irakur daitezke-nik, dotrina baten antzera. Auto-reek teoriak hartu eta zatika-zatika

puskatu dituzte, teorion parteak ikus daitezke. Hain zuzen teoria bakoitza osorik ez, baina zatitan ematen delakoxe, irakurleak ba-tzuetan bere nekeak izango ditu, zatiokin teoriaren gorputz osca atzera berregiten. Baina ihardunbi-de honek, oraingo egoeran, desben-taja baino mila bentaia gehiago du, batzaz beste.

Laugarren atalean hiru marxismo tiporen teorien laburtzapenak ema-ten dira, bilduna gisa.

Liburuari irakurle ugari opa dio-gu.

Joxe AZURMENDI

# Lana, langilea, lantegia

## U D A Z K E N E A N U Z T A R I K E Z

Zurrunmurrak ere egia-kiak bihurtu zaizkigu azken aldi honetan. Uztarik gabeko udazkenean gaud-e. Uztarik gabeko edo uzta txar-rekoa behinik behin.

Bianchin lanik eza dela eta langile mordoak kanpoan utzi du-te. Beste zenbait tokitan ere lan-gilea haserre dabil. Ez da gu-txiagorako. Inflazioa dela ez de-la, mundu guztiko gaitza dela ez dela, European zehar bankae-txeek porrot egin dutela ez du-tela, herri aurreratuen gaitza dela ez dela. Udazken tristea izan ohi da uztarik gabekoa.

Uda beroa izan dugu, zalan-tzazkoa, etorkizunaren itxarope-nak zuzpeltu gaituen arren, gau-zak lehen bezain ilun daudela esango genuke. Ekonomiarren oinarriarik ezak, politikaren zalan-tzak, oinarri oinarrikoko egitura-ren beharrak, gizarte arazo na-gusienak konpontzeko langileek beharrezkoa duten opor-bidea, gure egiturak Europakoan antze-ra moldatu beharrik atzortzen di-ten agintarien eta gainontze-koen buru bihotzak.

Dirudienez, azken aldi ho-netan bilera ugari izan da gauzak konpontzeko asmotan. Bada es-kuindarren eraginik, baita ezker-tarri izeneko edo demokratia itxurazkoenik ere. Eskuindarrak gogor dabilta eta demokratik beste bide bat eskaini nahi omen dute. Baina zer eratako bidea? Norentzat ezkertiar itxu-rezko bide hori? Ez ote da ma-mirik gabeko demokrazia baino izango? Zer da batzuk eta bes-teek guri eskaintzen digutena? Gure arazoari dagokionez, bes-teak hoegaita hamaika eskutik duelarik, jokoari ekitea merezi ote du? Ez dut uste, karta ho-berik ematen ez duguten bitar-tetan, «mus eskatuz», edo ho-rreretara behartuz jokatu beharko dugu.

Eta bienbitartean, gure lurral-de honetan ezinegona, kezka, eztabaida eta gero eta huelga borrorra haundiagoak. Lantegie-tan lana urritzen ari da, gor-dailu edo almazenak leporaino beteak daude, merkatuan, azo-kan ez dago behar hainbaterai-noko eskabiderik. Azken aldi ho-netan esan zaigunez, gutxiago gastatu eta ahalik eta gehien

aurreratu behar omen da? Le-henago ezin ezinean dabilenak izango ote du aurreratzeak eze-ren posibilidaderik?

Gizartea ekaitzak jotzen due-nean, ezinak jotzen duenean, gerrikoak estuzteko dela egin ohi digute. Urte on eta oparoak gertatu izan direnean, urtero eta urtean zahar lau haro edo al-ditan uzta aberatsa jaso izan denean, noren sakelera zuzendu dira irabazi horiek? Urte onak ezagutu ditu jauntxo batek bai-no gehiagok. Noren onerako izan dira urte horiek? Langileak jaso ahal du uzta horren frui-turik?

Ezinak jotzekoan, aurtengoa bezalako udazkena egokitzen de-nean, nor da gehienbat sufri be-harreen aurkitzen dena? Lanik ezak jo duela eta langileak kan-poratzean, urte etan lanean jar-dun ondoren gauetik goizera kanpoan aurkitzen diren langile horiek zer egin behar dute? Bi-dezkoa den indemnizazioa ere ematen omen zaie. Baina urte-ko hila bete bat ordaintzearekin zer egingo du aurrerantzean lan-gileak? Nora joko du ate joka?

Momentoa, oraingo une hau, dirudienez, nahiko aldrebesa du-gu. Zuhaitz zaharra igartua da-gu, oraindaino etxeari etsi egin izan dioten abeak pipiak jota aurkitzen dira, eta guztia erort-zeko arriskuan ote dagoen ere bildur gara. Baina etxeak lur jo-tzen duenean lehenean ezinean dagoena jo ohi du gehienetan. Ibilii bilian, zama guztia ezinean aurkitzen dagoen iendearen bis-ker joan ohi da. Nioz arte?

Udazkena, udaren azkena, ho-tza, uztarik gabea, tristea, lan-gile askorentzat kezkaz beteri-kakoa, etorkizunik gabekoa, ilu-naren atzeti egunsenti gabekoa ote?

Gerrikoak hestutu behar ba- dira gerriz-lodiak direnarenk es-tutzen hastea askoz hobea izan-gu dela uste dut, batez ere orain-artean uzta jaso izan du-tenen gerrikoak estutzen has-tea.

# EGUN EGUNGOA

BERRIAK

Bi gutun (edo eskutitz) ekarri dit postariak, bata Buenos Airestik eta bestea Zuberoatik. Ezin ahaztu bat bateko neure zirrara edo sentipena: Zuberoatikoa ne-kezaga iritsi zaidala esküe-tara bestea baino.

Mundu aldrebes honetan, ttikitan ikasitako Geografia ere killo-kolo dago: hurbilago den lurraldeak urrunago di-rudi eta.

Daniel Ibargoiti



Zuzendaria: MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Ara-goko Kaputxinoek argitara-tua. (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada -IRUIÑEA). Donostia: Okendo, 22. Tel. 41 95 88

**ARPIDE SARIA:**  
Barruan 350 pezeta  
Korreo batasune-tako herrietan 400 pezeta  
Atzerietako bes-te herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez aurre-tik galdetu  
Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta  
Moldiztegia eta Idazkoka: «Gráficas Navas» A. Adoain, 1. IRUIÑEA D.L. NA. 80-1963